

Gure morroitzaren jatorria

Ane Ablanedo Larrion
Unibertsitateko irakaslea

Gure garaiko munduan hain bilakatu zaizkigu ohikoak menderakuntza egoerak, non boterekeriarena gaizt estrukturala dela erratea ez den kasik eztabaidagarria ere. Egungo gaizt politikoa eta sozial gehien jatorrian dago mota bateko ala beste oprimazioa, baina hain urrun begiratu behar izan gabe ere, boterekerian dute oinarria gure berdinekin ezartzen ditugun harremanetako askok ere. *Makro*-an ala *mikro*-an begiratu, benetan asal-dagarria da dominazioaren sistemikotasuna.

Menderakuntza zergatik gertatzen den aztertzeke, norabide batean baino gehiagotan begiratu beharra dago. Tiranoak nor diren eta non dauden identifikatzeko segitu beharko dugu, noski, gorantz begiratzen, baina ezin dugu gure jarduna eginkizun horretan bakarrik oinarritu. Hain ohikoa ez bazaigu ere, *beherantz* ere hasi beharko dugu so egiten, tirano horien boterekeria hain erraz *onartzen* duten horriengana, alegia. Jada XVI. mendean La Boetiek ohartarazi zigunez, mendeokoen nolokotasunean aurkitzen duelako menderakuntza prozesuak, menderatuen artean benetan nagusitzeko behar duen faktore garrantzitsua. Menderakuntzaren fenomenoa mendekotasun psikologikoaren perspektibatik ikertu nahi izan dutenen artean Wilhelm Reichenen aportazioa azpimarratu nahi nuke, bera izan delako gaiari ezohiko erradikaltasunarekin heldu diona. XX. mendeko faxismoaren garaipenaren gako nagusia masaren psikologian zetzala argi frogatu zuen, eta ordu arte aintzat hartu gabe genuen faktore garrantzitsu baten berri eman zigun iraultzaileei. Jendearen psikologiaren manipulazio errotikakoa dela botereak darabilen menderakuntza-arma eragin korrena.

Gizarte guztiek erreproduzitzen dute hurrengo belaunaldietan gizarte hori sustengatzeko beharrezkoa den profil psikologikoa, eta eskura dituzten tresna guztiak erabiltzen dituzte, noski, jendearen mentalitatea eta jokamoldea beren beharren arabera zi-

zelkatzeko. Haurtzaroa izanik helduaren konfigurazioan erabakigarriena den garaia, heziketaren kontrola da etorkizuneko hiritarren karakterrean eragin nahi duen sistema batek duen modurik errazena. Horregatik dakigu heziketa-plangintza guztien oinarrian dagoela pertsona/mundu ideal bat, eta eredu horren arabera atontzen dela haurraren lortu eta ekidin nahi diren ezaugarri karakterialen zerrenda.

Askatasunez bizitzeko ezintasunarena da sistema autoritarioek gure psikologian bereziki instalatu nahi duten txip-a, nor bere buruaren autoritate gisa bizitzeko gai ez den pertsonak halaberrez ibili behar izan duelako beste norbaiten gidaritza penean, bere esanetara, bere morroi. Dependentsia emozionalaren inokulazio hori masiboki eragitea da heziketak isilgordean daraman ezkutuko curriculumaren funtsa, heziketari benetan eskatzen zaion egitekoa, eta erran gabe doa, arrakasta handiz lortzen duena.

Haurren heziketa ulertzeko paradigma hegemoniko gisa direktibitatearena ezarri izanaren atzean helburu horixe baino ez dago. Pertsona gisa garatzen ari den garaitek beretik haragitu dadila haurraren beste baten gidaritzaren beharra, eta ahal bezain laster eta ahal bezain sakon barneratu eta irents dezala funtsezko lezioa: bizitzan zehar egiten dituen mugimenduak ez dituela bere desio eta beharren arabera erabakiko, beregandik kanpo diren interesen arabera baizik.

Adoktrinamenduaren kontrako gure borroka efektiboa izango bada, hiritarraren oinarri psikologikoa eraldatzeko sistemak dituen mekanismoen higadura ezarri behar dugu jomuga

Mekanismo bat eta bakarrean datza, funtsean, kultura pedagogiko instruktiboak horretarako haurrengan aplikatzen duen mikrobiolentzia. Adinaren arabera tipiagoa edo handiagoa izan den bizitza-esparrua askatasunez kudeatzeko haurrak duen gaitasuna kaltetzea, horretarako dagokion eskubidea urratuz horrela. Morroitzarako ingeniariaritzaren politikoa honek oso goiz abiarazten du bere makineria, eta haur niniari bera iri ikasari nahi izaten zaio ez dela bera izan amaren bularra hartzeko unearren egokitasuna erabakiko duena—bera barmeko motibazioa edo beharren arabera—, kanpoko instantzia bat baizik. Adibidez. Ohikoak—eta beraz, *normalak*—dirrelako erabat onartu baditugu ere, erabat politikoa dira praktika pediatriko eta pedagogiko hauek guztiak, inozenteak diruditen arren, ekintza horien bitartez hasten zaiolako pertsonari kanpo-gidaritza baten behar kasik biologikoa sortzen. Bere erabakien zentralitate bere baitatik erazita, halaberrez ezarri beharko duelako beste norbaitengan. Autorregulazio (eta autogobernu) rako duen berezko gaitasuna, batzuei hainbeste komeni zaien soziorregulazioak ordezkatuz.

Eta zer ez dugu erratan ahal eskolak erabiltzen dituen mekanismoei buruz... Irakaslea da egin behar dena eta egin behar ez dena une oro erabakiko duena; zer, noiz, nola eta zertarako ikasi behar duen aginduko diona; hitz egiteko hainena eman edo kenduko diona; erantzunak zuzenak ala okerrak diren epaituko duena. Gizarte asimetriko eta bertikalaren eredu bete-betean erreproduzitzen da hor, horrela obedientzia eta gizartei adaptatu behar diren normaltasuna errotik asumituz.

Adoktrinamenduaren kontrako gure borroka efektiboa izango bada, hiritarraren oinarri psikologikoa eraldatzeko sistemak dituen mekanismoen higadura ezarri behar dugu jomuga. Eta horretarako abiapuntua, guretzat ere nahi dugun askatasunaren paradigma ezarri behar dugun haurtzaroaren kultura argiztatzera. Sortzen diren bezain aske eta burujabe hazi daitezten, eta ez dezaten helduaren, gure moduan, emantzipazioaren aldeko bide luzea urratu behar izan.

Lagun batek eta biok hitz egin dugu ligatzean (erdarakada nahita erabili dut, generoa esplitzitu ez egiteko) norik bere mugak, bere subjektibitate, babesgabe uzten dituela, segurantzaren espazioa abandonatzen duela une batez eta zalan-tzaren eta ziurtasunaren arteko ahoan ibiltzen dela orekan, bi urrats aurrera eta bat atzera egin. Hala gertatu zait niri behintzat, arriskatu naitzen aldi gutxi baina nahikoetan.



JIRA
Angel Erro

Solas horren luzagarri, lagunari bidali diot sarean aurkitutako notizia ustez bitxia: asmatu dute, eta laster eskuragarri egonen omen da, sakelakoarentzako aplikazio bat, *Legal Fling* izenekoa, bi helduen arteko sexu harreman adostua dela bermatzeko. Aplikazioak, besteak beste, kondoiaren erabilpenari edo *kontratatzaleak* dituen (ala ez dituen) sexu-transmisiozko eritasunei buruzko onspenna kontuan har dezake.

Airean galduko den ideia gora, atzerakoei helduko dioten argudio gorria ala datorren gizartearen aurrerapen segurua, ikusi beharko da. Azken paragrafo honetan utz ezadazue ligatzeak (hemen erdarakadak ez nau laguntzen, ez baita gauza bera neskatan egitea ala mutiletan) dakartzan erantzukizunak esangabaren eremutik ateratzearen etsipenak atsekabetu nazala. Atsekabegarriagoa da horren beharra.

Zaldi urdina

Arkatzak zorrotzen dihardu marrazkilariek. Kolorearen eta tamainaren arabera lerrokatu ditu mahai ertzean. Pertsiana igo du, ostera ere jaitsi. Eta zaldi urdin bat irudikatu du lamina zurriaren gainean. Mundua milimetrotan neurtzen duen horietakoa da, koardro bat okertu samar ikusten badu (dentistaren itzarongelan, adibidez), zuzendu arteko bakterik izaten ez duena. Bost minutu eta erdi behar izan ditu arkatza aukeratzeko, sei marrazten hasteko eta berrogeita sei zaldiaren zirriborroa egiteko. Buztaneko ileetara iritsi denean, kateatu egin



BIRA
Miren Amuriza

da, ordea. Eta hamar, hogeit, hogeita hamar minutu pasatu ditu adatsari irudikatutako mugimendua eman ezinik. Trazu bat egin, ezabatu, borragomaren arrastoari putz egin. Gogorxeago marraztu, gogorxeago ezabatu, gogorxeago putz egin... Eta horrela autolaguntzako liburuan azpimarratutako arau guztiak banan-banan hautsi arte. Marraztu, ezabatu, putz egin. Marraztu, ezabatu. Marraztu, marraztu, marraztu... Eta tomado itxurako zirrimarra batek irentsi du zaldi urdina. Arkatza horma kontrara bota, pertsiana igo eta leihoa zabaldu du. Pertsianapetik burua atera orduko akordatu da Maria Antonietari zintzurra moztu ziotenekoaz, eta hantxe, bere gillotina domestikoaekin fantaseatzen hastear dagoela, non ikusi duen pareko bizilaguna galtzerdiak tamainaren eta kolorearen arabera eskegitzen. Alclulial!